Mutrikuko Udala

MUTRIKUKO ONDARBELTZ, SATURRARAN ETA HERRIGUNEKO HONDARTZETAKO ZAINTZA-, SALBAMENDU- ETA SOROSPEN-ZERBITZUAREN KONTRATUA PROZEDURA IREKIAREN BIDEZ ESLEITZEKO BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA

PLIEGO DE CONDICIONES TÉCNICAS PARA LA ADJUDICACIÓN DEL CONTRATO DEL SERVICIO DE VIGILANCIA, SALVAMENTO Y ASISTENCIA EN LAS PLAYAS DE ONDARBELTZ, SATURRARAN Y EN LA DEL NÚCLEO URBANO DE MUTRIKU POR PROCEDIMIENTO ABIERTO

1.- KONTRATUAREN XEDEA

Kontratu honen xedea da Mutrikuko Ondarbeltz, Saturraran eta Herriguneko hondartzetan ("Hirugarren hondartza" eta "Zazpi hondartzak" izeneko eremuak izan ezik, baina bi marea-igerilekuetako eremuak barne) zaintza-, salbamendu- eta sorospen-zerbitzuak ematea 2023ko eta 2024ko udaldietan, klausula teknikoen agirian ezarritakoaren arabera.

1.- OBJETO DEL CONTRATO

Es objeto de este contrato la realización de los servicios de vigilancia, salvamento y asistencia en las playas de Ondarbeltz, Saturraran y en la del Núcleo Urbano del municipio de Mutriku (excepto las zonas denominadas "Tercera Playa" y "Siete Playas" pero incluyendo las zonas de las dos piscinas de mareas), durante las temporadas estivales 2023 y 2024 con arreglo a lo establecido en el pliego de cláusulas técnicas.

2.- IRAUPENA ETA GAUZATZEA

Betearazteko epea agintari eskudunak zehaztuko du bere garaian. Zehazten ez bada, kontratua gauzatzeko epea 2023ko ekainaren 15etik 2023ko irailaren 15era bitartekoa izango da. Aurrekoa gorabehera, espedientearen izapidetzea luzatzen bada, kontratua formalizatzen den egunetik aurrera hasiko da zerbitzua.

Kontratua gauzatzeko epea kontratuaren urte bakoitzeko udako denboraldi ofizialek osatuko dute, hau da, 2023ko eta 2024ko denboraldiek, biak barne. Behin luzatu ahal izango da, baina iraupen osoak, luzapena barne, ezin izango du hiru denboraldi baino gehiago iraun. Azken denboraldia 2025ekoa izango da.

Luzapena kontratazio-organoak erabakiko du, eta enpresa esleipendunak nahitaez egin

2. - PLAZO DE DURACIÓN Y EJECUCIÓN

El plazo de ejecución vendrá determinado por lo que establezca la autoridad competente en su momento. Si no se determinase ninguna limitación el plazo de ejecución del contrato sería desde el 15 de junio de 2023 hasta el 15 de septiembre de 2023. No obstante lo anterior, en caso de que se dilate la tramitación del expediente el servicio se iniciará desde la fecha en que se formalice el contrato.

El plazo de ejecución del contrato será el comprendido por las temporadas estivales oficiales de cada año de contrato, esto es, el de los años 2023 y 2024, ambos inclusive, pudiendo ser prorrogado por una vez sin que la duración total, incluida la prórroga pueda exceder de tres temporadas, siendo la última temporada la correspondiente al año 2025.

La prórroga se acordará por el órgano de contratación y será obligatoria para la

beharko du, betiere kontratuaren iraupen-epea amaitu baino gutxienez bost hilabete lehenago egiten badu aurreabisua. Indarraldia eta, hala badagokio, luzapena igarota, kontratua automatikoki amaituko da, eta esleipendunak zerbitzua emateari utziko dio.

3.- ZERBITZUAREN DESKRIBAPENA

Esleipendunak egin beharreko prestazio orokorren artean, honako hauek daude:

- Zaintza
- Salbamendua
- Asistentzia
- Desgaitasuna duten pertsonentzako bainu-zerbitzua

1. Zaintza:

   Zainketaren helburua edozein gorabehera eta non gertatu den azkar detektatzea da, eta, ondoren, horren arabera jardutea.

   Zerbitzuaren esleipendunak lehiaketaren xedean deskribatutako hondartza zaindu beharko du. Horretarako, patruila mugikorrak sortuko dira, itsas bazterrean etengabe ibiliko diren sorosle-bikoteez osatuak. Aitzitik, Mutrikuko hondartzan, zaintza “Dambor” izeneko moilara eta marea-igerilekuetara ere zabalduko da.

   Azken batean, jarduketa azkarrak egitea da kontua, puntu finkoetatik edo zaintza-patruiletatik jakinarazitako gorabeheren kasuan, edo bainularien abisuen aurrean.

   Hondartzako eremu jakin batzuetan bainatzea debekatuta dagoela

empresa adjudicataria, siempre que su preaviso se produzca al menos con cinco meses de antelación a la finalización del plazo de duración del contrato. Transcurrido el plazo de vigencia, y en su caso la prórroga, quedará automáticamente terminado el contrato y el adjudicatario cesará en la prestación del servicio.

3.- DESCRIPCIÓN DEL SERVICIO

Dentro de las prestaciones generales a realizar por el Adjudicatario se incluyen:

- Vigilancia
- Salvamento
- Asistencia
- Servicio de baño para personas con discapacidad

1. Vigilancia:

   El objeto de la vigilancia es detectar rápidamente cualquier posible incidente y el lugar donde se produce, para posteriormente actuar en consecuencia.

   El Adjudicatario del servicio deberá realizar la vigilancia en la playa descrita en el objeto de concurso. Para ello, se crearán las patrullas móviles formadas por parejas de socorristas que recorrerán constantemente la orilla del mar. Por el contrario, en la playa de Mutriku la vigilancia se extenderá también al malecón denominado “Tambor” y a las piscinas de mareas.

   Se trata, en definitiva, de realizar actuaciones rápidas en caso de incidencias notificadas desde los distintos puntos fijos o patrullas de vigilancia, o ante el aviso de los propios bañistas.

   La colocación de banderas rojas que

adierazten duten bandera gorriak jartzeak ez du esan nahi esleipendunak eremu horiek zaindu behar ez dituenik.

2. Salbamendua

Eskatzen diren gutxieneko giza baliabideekin egingo da salbamendu-zerbitzua. Giza baliabide horiek berariazko titulazioa izan beharko dute nahitaez, eta kontratatzen den zerbitzuari esleitutako bitarteko mekanikoekin eta lokomozio-baliabideekin osatuko dira.

Gorabeherarik gertatuz gero, kontratatutako zerbitzua erabiltzailea kontrako ingurunean salbatzen eta dagokion laguntza ematen saiatuko da, beharrezko neurriak gertakarien lekuan bertan aplikatuz, eta ondoren oinarrizko botikinera lekualdatuz, edo bitarteko egokiak erabiliz garraioa kudeatuz kasuan kasuko osasun-zentrora.

3. Laguntza

Esleipendunak hondartzan egiten den edozein jardueraren ondorioz sor daitezkeen kasu guztiei erantzun beharko die, hala nola mota guztietako ebakiak, intsektuen eta arrainen ziztadak, digestio-etendurak, zorabioak, etab.

Zaintza-patruilei eskatutako zerbitzuak eta oinarrizko botikina emateko behar diren giza baliabideak eta prestakuntza eduki beharko dira.

Zerbitzu hori emateko, beharrezko ekipoak eta materialak izateaz gain, ezinbestekoa izango da tratu pertsonal egokia ematea, istripua izan duena babestuta senti dadin eta langile adeitsu eta atseginen esku egon

indican la prohibición del baño, en zonas concretas de la playa, no exime al adjudicatario la realización de la vigilancia de dichas zonas.

2. Salvamiento

El servicio de salvamento se realizará con el mínimo de medios humanos exigidos, que dispondrán necesariamente de titulación específica para ello, complementados con los medios mecánicos y de locomoción asignados al servicio que se contrata.

En los casos de incidente, el servicio contratado, intentará salvar al usuario en el entorno adverso y efectuar el auxilio correspondiente, aplicando las medidas necesarias en el propio lugar de los hechos, así como un traslado posterior, bien al botiquín base o gestionar el traslado con los medios adecuados hasta el centro sanitario que proceda en cada caso.

3. Asistencia

El Adjudicatario deberá atender, todos aquellos casos que pudieran surgir como consecuencia de cualquier tipo de actividad realizada en la playa, como pueden ser, todo tipo de cortes, picaduras de insectos y peces, cortes de digestión, mareos, etc.

Se deberá contar con los medios humanos necesarios y con la preparación exigida para atender tanto los servicios solicitados a las patrullas de vigilancia, como el botiquín base.

Para la realización de este servicio, además de contar con los equipos y materiales precisos, será indispensable responder con, un trato personal adecuado, de forma que el/la accidentado/a se sienta protegido/a y

dadin.

Laguntza-lanak egin ondoren, bai gertakarien lekuan bertan, bai oinarrizko botikinean, eta beharrezkoa bada, istripua izan duena dagokion osasun-zentrora eramango da, edo Osasun Larrialdietako zerbitzu medikoei jakinaraziko zaie ospitale batera eraman dezaten.

Anbulantzia bat behar bada, eskatu egin beharko da.

4.- ZERBITZUAREN ANTOLAMENDUA

Eskaintzak aurkeztean, proposamengile bakoitzak beharrezkotzat jotzen duen barne-antolaketa proposatuko du, Baldintza Teknikoen Agiri honetan adierazitakoa betetzeko.

Nolanahi ere, egoera klimatologikoa edo hondartzan programatutako jarduerak egun gehiagotan luzatzea aurreikusten duten irtenbideak proposatu ahal izango dira.

Jarduketa-proposamenak planteatzean, bereziki hartuko dira kontuan hondartzako gune jakin batzuen inguruabar bereziak, korronteei eta abarri dagokienez.

Udalarekin harreman ona izateko, eskaintzaileak txostenak egin beharko ditu, aldizkakotasun hauekin:

- Berehalako txostena: presaz bidalitakoa izango da, baldin eta ezohiko gorabeheraren bat gertatzen bada.
- Hamabostean behingo txostena; bi astero bidali beharko zaio buruari edo Udalak eskuordetutako pertsonari. Txostena posta elektronikoz bidaliko da, eta bertan bi asteetan izandako gorabeheren datuak adieraziko dira.

en manos de un personal educado y amable.

Una vez efectuadas las labores de asistencia, bien en el lugar de los hechos o bien en el botiquín base y en caso de que fuese necesario, se evacuará al/a la accidentado/a hasta el centro Sanitario que proceda en cada caso, o se avisará a los servicios médicos de Urgencias de Sanidad para su traslado a un hospital.

En el caso de que se precisara la presencia de una ambulancia, se requerirá el uso de la misma.

4.- ORGANIZACIÓN DEL SERVICIO

En la presentación de las ofertas, cada proponente planteará la organización interna que considere necesaria, para cumplir con lo indicado en el presente Pliego de Prescripciones Técnicas.

Podrán en todo caso plantearse soluciones que contemplen ampliaciones, en días de máxima afluencia, del estado climatológico o de actuaciones programadas en la playa.

Serán especialmente tenidas en cuenta las circunstancias especiales de zonas concretas de la playa en cuanto a corrientes, etc., en el planteamiento de las propuestas de actuación.

Para mantener una relación fluida con el Ayuntamiento, el ofertante realizará informes con las siguientes periodicidades:

- Informe inmediato, será aquel enviado de manera urgente, siempre que ocurra un incidenteno rutinario.
- Informe quincenal será aquel, que se deberá enviar cada dos semanas al Jefe o persona en quien delegue el Ayuntamiento. El informe se enviará por e-mail y en el mismo se indicarán

- Sasoiko txostena: 15 eguneko epean, udako denboraldi ofiziala amaitu ondoren, memoria xehatu gisa aurkeztu beharko da, eta bertan adieraziko dira egindako jarduerak, egindako gastuak eta egokitzat jotzen diren alderdi aipagarri eta iradokizun guztiak.

- los datos de los incidentes acaecidos durante las dos semanas.
- Informe de temporada, será aquel que en un plazo de 15 días, una vez finalizada la temporada estival oficial, deberá entregarse a modo de memoria detallada, indicando las actuaciones prestadas, gastos efectuados y cuantos aspectos destacables y sugerencias se estimen oportunas.

5.- XEDAPENA ETA BALIABIDEAK

Kontratuaren xede diren hondartzen zaintza-, salbamendu- eta sorospen-zerbitzua emateko, esleipendunak honako hauek hartu beharko ditu kontuan:

1. Udalak zehazten duen udako denboraldi ofizial osoan egingo da zerbitzua, 11:00etatik 19:00etara, etenik gabe.

2. Bai lanaldiaren hasieran, bai amaieran, esleipendunak zaintza-, salbamendu- eta sorospen-zerbitzuaren hasieraren eta amaieraren berri eman beharko die hondartzako erabiltzaileei, horretarako jarritako megafonia-ekipoaren bidez.

3. Megafoniatik igortzen diren mezu guztiak gutxienez bi hizkuntza ofizialetan egingo dira: euskaraz eta gaztelaniaz, eta hurrenkera horretan.

4. Hondartza inguruan haurrak galdu edo desorientatuz gero, esleipenduna kontu handiz saiatuko da gurasoak aurkitzen. Horretarako, beharrezkoa izanez gero, megafonia erabiliko du.

5.- DISPOSICIÓN Y MEDIOS

Para la realización del Servicio de Vigilancia, Salvamento y Asistencia de las playas objeto del contrato deberá el adjudicatario tener en cuenta las siguientes consideraciones:

1. El servicio se realizará durante toda la temporada estival oficial determinada por el Ayuntamiento y de forma ininterrumpida de 11:00 a 19:00 horas.

2. Tanto al inicio de la jornada como a la finalización de la misma deberá el Adjudicatario informar a los usuarios de la Playa, mediante el equipo de megafonía instalado al efecto, del comienzo y final del servicio de vigilancia, salvamento y asistencia.

3. La totalidad de los mensajes que se emitan por la megafonía, se realizarán al menos en los dos idiomas oficiales: Euskara y castellano, y por este orden.

4. En el supuesto de que se diera el caso de pérdida o desorientación de niños/as en la zona de la Playa, el adjudicatario procurará con mucho tacto dar con los padres de los mismos o en su caso con los/as niños/as desorientados/as. Para ello, si fuese necesario recurrirá a la megafonía instalada al efecto.

5. Megafonia-ekipoa erabiltzean, esleipenduna saiatuko da zaintza-, salbamendu- eta sorospen-zerbitzuarekin lotura zuzenik ez duten mezurik ez bidaltzen, alkatetzak erabiltzaileei informazio orokorra emateko bidaltzen dituen mezuak izan ezik.

5. A la hora de utilizar el equipo de megafonía el adjudicatario procurará no trasladar mensajes que no tengan relación directa con el servicio de vigilancia, salvamento y asistencia, a excepción de aquellos mensajes que desde la Alcaldía se decidan transmitir, para información general de los/as usuarios/as.

6. Udalak esleipendunaren eskura jartzen dituen ondasunak garbitasun- eta kontserbazio-egoera ezin hobean mantendu beharko dira.

6. Los bienes que el Ayuntamiento ponga a disposición del adjudicatario deberán de ser mantenidos en perfecto estado de limpieza y conservación.

7. Sorosleek behar adina anagrama eta bereizgarri dituzten jantziak eramango dituzte, hondartzako erabiltzaileek arazorik gabe bereiz ditzaten.

7. Los socorristas llevarán prendas con los anagramas y distintivos suficientes, para que los usuarios de la Playa puedan distinguirlos sin ninguna dificultad.

8. Esleipenduna egunero arduratuko da lanaldiaren hasieran banderak, kartelak eta kontratatzen den zerbitzurako erabiltzen diren elementu guztiak jartzeaz eta banagunera eramateaz, baita Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak jartzeko agintzen dituen kartelak jartzeaz ere.

8. Diariamente el Adjudicatario se responsabilizará de colocar al inicio de la jornada y retirar a la base al finalizar la misma, las banderas, carteles y cuantos elementos se utilicen destinados al servicio que se contrate, incluyendo aquellos carteles que desde el Departamento de Sanidad del Gobierno Vasco se indiquen colocar.

9. Baldintza klimatologiko txarrak ez dira aitzakia izango esleipendunak sor daitezkeen gorabeherei aurre egiteko behar den zerbitzua emateari uzteko.

9. Las malas condiciones climatológicas no serán excusa para que el Adjudicatario deje de prestar el servicio necesario para hacer frente a las eventualidades que pudieran surgir.

10. Zerbitzuko langileek erabiltzaileen segurtasuna zainduko dute, eta bainatzeko eta balizatzeko eremuetako jarraibideak eta debekuak betearazteko ahalegina egingo dute. Nolanahi ere, Udalari dagokio bainularien jarrera gaitzesgarriak zigortzea.

10. El personal del Servicio velará por la Seguridad de los usuarios, de manera que procurará hacer cumplir las indicaciones y prohibiciones de las zonas de baño y balizamiento. En todo caso corresponderá al Ayuntamiento la potestad de sancionar actitudes reprobables de

11. Arduradun koordinatzaileak idatziz jakinarazi beharko dio buruari edo udalak eskuordetutako pertsonari hondartzako erabiltzaileentzat arriskutsuak izan daitezkeen material eta instalazioetan izandako edozein narriadura.

12. Udalak hondartzari eta haren inguruneari buruz antolatzen dituen kanpaina guztietan lagundu beharko du esleipendunak, hala nola segurtasuneko eta higieneko ingurumen-kanpainetan, eta abar.

13. Uraren laginak hartuko ditu, ondoren laborategian analizatzeko, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak adierazten duen aldizkakotasunarekin, eta Udalak eskatzen dion bakoitzean.

14. Ahalegina egingo da zerbitzuko pertsona guztiek euskara erabil dezaten, eta, salbuespen gisa, prestasun zailtasunengatik, edo pertsonaren baten kualifikazio berezia edo esperientzia dela eta justifikatutako arrazoiren bat dagoenean, eskakizuna egokitu ahal izango da. Hala ere, gutxienez kideen % 80k euskara erabiltzea bermatuko da, erabiltzaileak esleipenduneko langileekin Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetako edozeinetan komunikatu ahal izan daitezen. Era berean, Udalari dagokionez, euskararen erabilera bermatuko da, bai idatziz (denboraldi-amaierako txostena), bai ahoz. Euskararen ezagutza hizkuntza-eskakizunen bidez egiaztatuko da, administrazio-klausulen pleguan zehazten den bezala.

los bañistas.

11. El responsable coordinador deberá notificar por escrito al Jefe o persona en quien delegue del Ayuntamiento, cualquier deterioro localizado en materiales e instalaciones que pudieran representar riesgo para los usuarios de la playa.

12. El adjudicatario deberá colaborar en todas aquellas campañas que el Ayuntamiento organice, con respecto de la playa y su entorno, como puedan ser, campañas medioambientales de seguridad e higiene, etc.

13. Realizará la toma de muestras de agua, para su posterior análisis en el laboratorio, con la periodicidad que indique el Departamento de Sanidad del Gobierno Vasco, y cada vez que el Ayuntamiento le requiera.

14. Se procurará el uso del Euskara por todas las personas del servicio, y excepcionalmente por causa justificada relacionada a la dificultad de disponibilidad o especial cualificación o experiencia de alguna persona se podrá atemperar la exigencia a algún caso, sin embargo, se garantizará el uso del Euskara por al menos el 80% de los integrantes de los mismos, de forma que los usuarios puedan comunicarse con los operarios del Adjudicatario, en cualquiera de las dos lenguas oficiales de la Comunidad Autónoma del País Vasco. Así mismo, en relación con el Ayuntamiento se garantizará el uso del euskera, tanto a nivel escrito (informe de final de temporada) como oral. El conocimiento del euskera se acreditará mediante perfiles lingüísticos tal y como se concreta en el pliego de cláusulas administrativas.

15. Debekatuta dago lehiaketaren xede den zerbitzuarekin zerikusirik ez duten intsigniak eta eranskailuak erabiltzea.

16. Esleipendunak ahalik eta lasterren emango du Udalak ingurumenari eta sistemari buruz eskatzen duen dokumentazioa.

17. Esleipendunak udaleko hondartzen arduradunari jakinaraziko dio, behar besteko aurrerapenarekin, Zaintza eta Sorospen Zerbitzuan ohikoa ez den edozein jarduera, nahiz eta jarduera hori emandako zerbitzutik kanpokoa ez izan (hormak eta sabaiak margotzea, balizatzea, fluoreszenteak aldatzea...). Hori ezin izango da gauzatu Udalaren onespena lortu arte eta Udalak egokitzat jotzen dituen baldintzetan.

18. Esleipendunak udako denboraldiko egun guztietan egin beharko du itsasoaren egoeraren eta klimatologiaren balorazio bisual zehatza, itsas korronteak eta haize nagusiak aztertu ondoren, itsasoaren egoera adierazten duen bandera ikusteko moduan jartzeko, hondartzetarako edo zonetarako, adierazle hauei jarraituz:

- BERDEA: Bainu librea
- HORIA: Bainua kontuz
- GORRIA: Bainatzea debekatuta

19. Uraren kalitateari buruzko informazioari dagokionez, Eusko Jaurlaritzako Osasun Saileko zerbitzuek, txostenak aztertu ondoren, informazio horren kalitatea adierazi beharko diote zerbitzuaren

15. Queda prohibida la utilización de insignias y pegatinas que no estén relacionadas con el servicio objeto del Concurso.

16. El adjudicatario facilitará a la mayor brevedad posible, cualquier documentación que el Ayuntamiento estime oportuno en relación con el Medio Ambiente y con el sistema.

17. El adjudicatario avisará al responsable de playas del Ayuntamiento, con la suficiente antelación, de cualquier actividad no habitual en el Servicio de Vigilancia y Socorrismo, aunque esta no sea ajena al servicio prestado (pintado de paredes y techos, balizamiento, cambio de fluorescentes,...). La cual no podrá llevarse a cabo hasta conseguir la aprobación del Ayuntamiento, y en las condiciones que éste estime oportunas.

18. Deberá el adjudicatario todos los días de la temporada estival oficial, realizar una valoración visual exhaustiva del estado de la mar y la climatología, para una vez analizadas las corrientes marinas y los vientos reinantes proceder a colocar de forma visible la bandera que indique el estado de la mar, para las playas o por zonas, siguiendo estos indicativos:

- VERDE: Baño libre
- AMARILLA: Baño con precaución
- ROJA: Prohibido el baño

19. En cuanto a la información referente a la calidad del agua, corresponderá a los servicios del Dpto. de Sanidad del Gobierno Vasco, una vez analizados los informes, indicar al Adjudicatario del Servicio, la calidad

esleipendunari. Enpresa esleipendunak egunero adieraziko die hondartzako erabiltzaileei uraren kalitatea, megafoniaren eta/edo beste komunikabide baten bidez (hondartzen sarrerako panelak, etab.).

6.- ENPRESAKO LANGILEAK

Enpresa esleipendunak behar dituen langileak eduki beharko ditu une oro, baldintza teknikoen agiri honetan zehaztutako lan guztiak egiteko kopuruan eta baldintzetan.

Gutxienez, honako giza baliabide hauek izango dira zerbitzua emateko ordutegian:

- Hondartzetako arduradun bat.
- Saturrarango hondartzako 3 sorosle
- 3 sorosle igerileku berriak, igerileku zaharrak eta hiriguneko hondartzak osatutako eremu bateraturako, eta uretako motoko sorosle bat.
- 2 sorosle Ondarbeltzeko hondartzan

Langileen profila honako hau izango da:

- Hondartzako arduraduna: lehen sorospenei buruzko ikastaroa eta uretako sorospenari buruzko prestakuntza-ikastaroa. Gutxienez 3 urteko esperientzia hondartzako sorosle gisa
- Sorosleak: lehen sorospenei buruzko ikastaroa eta uretako sorospenari buruzko prestakuntza-ikastaroa.

Enpresa esleipendunak beharrezkoak diren giza baliabideak izan beharko ditu, zuzenekoak zein zeharkakoak, lehiaketaren xede diren lanak une oro egingo direla ziurtatzeko eta aldi baterako egoerak betetzeko, hala nola gaixotasunagatiko edo istripuagatiko bajak, laneko absentismoa, baimenak, sindikatu-lanak eta behar bezala

de la misma. La empresa adjudicataria indicará diariamente a los/as usuarios/as de la playa la calidad del agua, mediante megafonía y/u otro medio de comunicación (paneles a la entrada de las playas, etc…).

6.- PERSONAL DE LA EMPRESA

La Empresa Adjudicataria deberá disponer en todo momento del personal necesario en número y condiciones para efectuar todos los trabajos especificados en el presente Pliego de Condiciones Técnicas.

Se contará como mínimo con los siguientes recursos humanos durante el horario de prestación del servicio:

- Un responsable de playas.
- 3 socorristas playa de Saturrarán
- 3 socorristas para la zona conjunta formada por la piscina nueva, piscina vieja y playa del núcleo urbano y un socorrista patrón de moto acuática
- 2 socorristas pen la playa de Ondarbeltz

El perfil del personal será el siguiente:

- Responsable de playa: curso de primeros auxilios y curso de formación en socorrismo acuático. Experiencia mínima de 3 años como socorrista de playa
- Socorristas: curso de primeros auxilios y curso de formación en socorrismo acuático.

La empresa adjudicataria deberá disponer para realizar los servicios de los medios humanos tanto directos como indirectos necesarios para asegurar en todo momento la ejecución de los trabajos objeto del concurso y cubrir eventualidades como bajas por enfermedad o accidente, absentismo laboral, permisos, labores sindicales, y otras causas debidamente justificadas. Dichas

justifikatutako beste arrazoi batzuk. Langileen absentzia edo baja horiek berehala bete beharko dira.

Langile horien buru arduradun bat egongo da, dedikazio osoko koordinatzaile nagusi lanak egingo dituena. Funtzio honen ardura duen pertsonak euskararen erabilera menderatuko du, bai ahoz bai idatziz, eta aldez aurretik Udalaren onespena lortu beharko du. Pertsona horrek telefono mugikor baten bidez kontaktazeko moduan egon beharko du lanaldi osoan.

Udalak beharrezkotzat jotzen dituen argibide guztiak enpresa esleipendunaren arduradunari zuzenduko zaizkio, eta enpresako zuzendaritzari ere zuzendu ahal izango zaizkio. Udaleko langileek sarbide librea izango dute udal instalazio eta zerbitzuen jarraipena egiteko.

Denboraldia hasi eta 15 eguneko epean, Udalari zerrenda bat emango zaio, honako hauek adierazita: izen-abizenak, eta zerbitzuko langile guztien destinoa eta eginkizuna, dagokion egiaztagiriarekin batera. Halaber, horien guztien kontratuaren kopia erantsiko da.

Aldaketarik egonez gero, horiek ere jakinarazi beharko dira.

Udalak kontratuaren xede den zerbitzurako egokitzat jotzen ez diren teknikariak eta langileak aldatzea proposatu ahal izango du.

Esleipendunaen ardura izango dira aldagelan garbitasun, txukuntasun eta jantzien uniformetasun faltak sor ditzaken ondorioak, bai eta zerbitzuko langileek, oro har, erabiltzaileei erakusten dieten adeitasunik eza edo tratu txarrak ere.

Esleipendunak bere kargura dituen langile

ausencias o bajas del personal deberán ser cubiertas de forma inmediata.

Al frente de este personal deberá existir un/a responsable con funciones de coordinador general a plena dedicación. La persona encargada de esta función dominará el uso del euskara tanto a nivel oral como a nivel escrito, y habrá de obtener previamente la aprobación del Ayuntamiento. Esta persona deberá estar localizable por medio de un teléfono móvil durante toda la jornada de trabajo.

Todas las indicaciones que el Ayuntamiento crea necesarias serán dirigidas al citado encargado de la empresa adjudicataria, sin perjuicio de poderlas dirigir igualmente a la dirección de la empresa. El personal del Ayuntamiento tendrá libre acceso para el seguimiento de las instalaciones y servicios municipales.

En el plazo de 15 días del comienzo de la temporada se entregará al Ayuntamiento una relación indicando nombre y apellidos, así como destino y función a desempeñar de todo el personal del servicio acompañado de su acreditación correspondiente. Asimismo, se adjuntará copia de contrato de todos ellos.

En el caso de que hubiere modificaciones, éstas también deberán ser notificadas.

El Ayuntamiento podrá proponer cambios de los técnicos y personal que no sea considerado idóneo para el servicio objeto del contrato.

El adjudicatario se responsabilizará de las consecuencias de la falta de aseo, decoro y uniformidad en el vestuario, así como de la descortesía o mal trato que se observe en el personal del servicio hacia los usuarios en general.

El adjudicatario deberá tener debidamente asegurado a todo el personal a su cargo.

guztiak behar bezala aseguratuta eduki beharko ditu.

Greba edo enpresa-gatazka izanez gero, Udalak edo beste erakunde eskudun batzuek ezartzen dituzten gutxieneko zerbitzuak bete eta gauzatu beharko ditu.

Gutxieneko zerbitzu horiek ez betetzeak edo gatazka luzatzeak egoera jasangaitza ekarriko balu, eta, ondorioz, zerbitzua bertan behera utziko balitz zuzenean edo zeharka, enpresa esleipendunak, Udalak hala eskatuta, salbamendurako ontziak eta material osagarria eta gainerako baliabideak eman beharko dizkio Udalari, honek, bere langileekin egokitzat jotzen dituen zerbitzuak bete ditzan, lan-arloko normaltasuna berrezarri arte. Exekuzio horretatik eratorritako kostu guztiak, deskribatutako moduan edo enpresa esleipendunaren ontziak edo bitartekoak barne hartzen ez dituen beste edozein modu alternatibotan, enpresa esleipendunaren kontura izango dira, hargatik eragotzi gabe sor litezkeen erantzukizunak.

Esleipendunak ezin izango du inola ere aitzakiarik jarri baldintza-agiri honetan adierazitako zerbitzuak eteteko edo atzeratzeko langilerik ez dagoelako, eta horiek gauzatzeko behar diren langileak eduki beharko ditu une oro, hileko kuota finkoan inolako eraginik izan gabe.

Udalak enpresa esleipendunari eskatu ahal izango dio kontratatutako zerbitzuko edozein langile ordezteko, bost (5) eguneko epean, baldin eta lanean interesik edo etekinik ez dagoela ikusten badu, erabiltzaileekiko tratu txarra edo Udalaren iritziz kontratatutako zerbitzuaren kalitatean eragin negatiboa izan dezakeen beste gorabeheraren bat antzematen badu.

Enpresa esleipenduneko langileek ez dute,

En caso de huelga o conflicto de Empresa, ésta deberá de acatar y llevar a cabo los Servicios mínimos que el Ayuntamiento u otros Organismos competentes establezcan.

Si el incumplimiento de dichos Servicios mínimos o la prolongación del conflicto diera lugar a una situación insostenible de forma que se abandone el servicio directa o indirectamente, la Empresa adjudicataria a requerimiento del Ayuntamiento deberá ceder las embarcaciones y material auxiliar de salvamento y demás medios al Ayuntamiento, para que éste con su personal, pueda cumplir con los Servicios que estime convenientes hasta el restablecimiento de la normalidad laboral. La totalidad de los costes derivados de tal ejecución ya sea en la forma descrita o de cualquier otra forma alternativa que no implique a las embarcaciones o medios de la empresa adjudicataria, correrán a cargo de la misma sin perjuicio de las responsabilidades a las que pudiere haber dado lugar.

El Adjudicatario no podrá pretextar en ningún caso la falta de personal para suspender o retrasar los servicios indicados en este Pliego debiendo disponer en todo momento del personal necesario para su ejecución, sin repercusión alguna sobre la cuota mensual fija.

El Ayuntamiento podrá exigir de la empresa adjudicataria y ésta deberá hacerlo efectivo, en un plazo de cinco (5) días, la sustitución de cualquier trabajador perteneciente al Servicio contratado, si se advirtiera falta de interés o rendimiento en el trabajo, mal trato con respecto a los usuarios o alguna otra circunstancia que a juicio del Ayuntamiento pudiera incidir negativamente en la calidad del Servicio contratado.

El personal de la empresa adjudicataria en ningún supuesto tendrá vinculación o

inola ere, Mutrikuko Udalarekin inolako lan-loturarik edo lan-harremanik, kontratu-harremanik, harreman funtzionalik edo inolako loturarik izango. Enpresa horrek horren berri eman beharko die langileei, eta egiten dituen langile-kontratuetan berariaz adierazi beharko du inguruabar hori. Era berean, argi utziko da esleipenaren amaieran ez dela pertsonalaren eskualdaketarik emango, Udalak zerbitzuaren prestazioa bere gain hartzeagatik edo kontserbazio hori beste enpresa bati esleitzeagatik.

Udalak esleipendunari eskatu ahal izango dio langileak zerbitzutik kentzeko edo horretarako arrazoia ematen duten langileei dagokion zigorra ezartzeko.

Enpresa esleipendunaren koordinatzaile-eginkizunak dituen arduradunak dedikazio osoa izango du zerbitzu buru gisa, eta bere eginkizunak betetzean sortzen diren arazo guztiak ebatziko ditu.

Eskainitako zerbitzuan erdi-mailako edo goi-mailako osasun-titulazioa duten langileak (erizaina, medikua) etengabe edo noizean behin sartzea lizitazioan hobekuntzatzat jo ahal izango da.

7.- MATERIALA ETA TRESNAK

Enpresa esleipendunak zerbitzuak gauzatzeko behar diren baliabide material guztiak jarri beharko ditu. Eskatutako gutxieneko baliabideak honako hauek izango dira:

- Hondartzako postuan dagoen botikina, material sanitarioarekin eta medikazioarekin, lehen arreta emateko: esterilizatzailea, josturako materiala, immobilizaziorakoa…
- Oxigenoa
- Jantziak
- Latak, hegatsak...
- Talkyak eta zorroak
- Erreskate-ohol bat

relación laboral, contractual, funcional o de naturaleza alguna con respecto al Ayuntamiento de Mutriku, debiendo dicha empresa tener informado a su personal de dicho extremo, haciendo constar, en los contratos de personal que realice, expresamente esta circunstancia, así como que al término de la adjudicación no se producirá el traspaso por el hecho de asumir el Ayuntamiento la prestación del servicio o adjudicar esta conservación a otra empresa.

El Ayuntamiento podrá solicitar al adjudicatario que separe del servicio o imponga la sanción oportuna al personal que diese motivo para ello.

El responsable con funciones de coordinador de la empresa adjudicataria tendrá dedicación completa al frente del servicio y será quien resolverá cuántos problemas surjan en el desempeño de sus funciones.

Se podrá considerar mejoras a la licitación la incorporación continua o esporádica en el servicio ofertado de personal con titulación sanitaria de grado medio o superior (enfermera/o, médico…).

7.- MATERIAL Y UTENSILIOS

La empresa adjudicataria deberá aportar cuantos medios materiales sean necesarios para la ejecución de los Servicios. Los recursos mínimos exigidos serán en todo caso:

- Botiquín situado en el puesto de la playa con material sanitario y medicación para prestar una primera atención: esterilizador, material de sutura, inmovilización…
- Oxígeno
- Vestuario
- Latas, aletas,...
- Talkys y fundas
- Un tablón de rescate
- Una silla anfibia

- Aulki anfibioa
- Desfibriladore automatiko bat (*)

* 9/2015 Dekretua, urtarrilaren 27koa, kanpo-desfibriladore automatiko eta erdiautomatikoen ezarpena eta erabilera arautzen dituena, eta haiek osasun-esparrutik kanpoko erabilera publikoko gune jakin batzuetan jartzea beharrezkoa dela xedatzen duena kontuan hartuko da.

Lizitatzaileek zerbitzuari atxikitzea erabakitzen duten material mugikorra adierazi beharko dute. Lizitatzaileek eskaintzen duten material guztia, ontzia barne, erabiltzeko eta kontserbatzeko egoera ezin hobean egongo da, eta udal-teknikariek baztertu ahal izango dute baldintza horiek betetzen ez dituztenean, eta esleipendunak beste bat jarri beharko du haren ordez.

Lizitatzaileek beren eskaintzetan adieraziko dute zer material erabili behar den zeregin desberdinetan. Zerbitzuak gauzatzeko erabilgarri dauden baliabide materialek une oro bermatuko dute zerbitzu hori lan-plana garaiz gauzatzeko behar besteko tartearekin emango dela.

Lehen adierazitako materiala esleipendunak lanak egiteko izan beharko duen gutxienekoa izango da. Hala ere, esleipendunak material horren kantitatea handitu edo osatu beharko du, baldin eta hori beharrezkoa bada zerbitzuak behar bezala ematen direla bermatzeko, eta horrek ez du esan nahi esleipenaren prezioa igotzen denik.

8.- INSTALAZIO FINKOAK

Plegu honetan adierazitako zerbitzuak behar bezala emateko, esleipendunak **Mutrikuko herriguneko hondartzaren kasuan**, Eusko Jaurlaritzako Portu eta Itsas Gaietako Zuzendaritzak hondartzaren inguruan lagatako instalazioak erabiliko ditu.

- Un desfibrilador automático (*)

*el uso del mismo deberá ser conforme a lo regulado en el El Decreto 9/2015, de 27 de enero, por el que se regula la instalación y uso de desfibriladores externos automáticos y semiautomáticos y se establece la obligatoriedad de su instalación en determinados espacios de uso público externos al ámbito sanitario. (BOPV, 04-02-2015)

Los licitadores deberán hacer constar el material móvil que decidan adscribir al servicio. Todo el material, incluida la embarcación que oferten los licitadores se encontrará en perfecto estado de utilización y conservación, pudiendo ser desechado por los técnicos municipales cuando no reúnan estas condiciones, debiendo el adjudicatario sustituirlo por otro adecuado.

Los licitadores en sus ofertas indicarán el diverso material a utilizar en los diferentes cometidos. Los medios materiales disponibles para la ejecución de los servicios asegurarán en todo momento la prestación del mismo con margen suficiente para llevar a término puntualmente el plan de trabajo.

El material señalado anteriormente, será el mínimo que el adjudicatario deberá disponer para la ejecución de los trabajos. No obstante, el adjudicatario deberá aumentar o completar dicho material, si ello es necesario para garantizar la correcta prestación de los servicios, sin que ello suponga un aumento del precio de la adjudicación.

8.- INSTALACIONES FIJAS

Para la debida prestación de los servicios indicados en el presente Pliego el adjudicatario utilizará en el caso de **la playa del núcleo urbano de Mutriku**, las instalaciones que sean cedidas por la dirección de Puertos del Gobierno Vasco en el entorno de la playa.

Saturrarango hondartzaren kasuan, agiri honetan adierazitako zerbitzuak behar bezala emateko, esleipendunak behin-behineko etxola bat instalatu beharko du, eta etxola horren gastu guztiak bere gain hartuko ditu (alokairua, garraioa, instalazioa,...).

En el caso de la **playa de Saturraran**, para la debida prestación de los servicios indicados en el presente pliego el adjudicatario deberá instalar una caseta provisional y se hará cargo de todos los gastos del mismo (alquiler, transporte, instalación,…).

Ondarbeltz hondartzaren kasuan, Mutrikuko Udalak modulu egoki bat instalatuko du agiri honetan adierazitako zerbitzuak behar bezala emateko. Instalazio horren alokairuaren kostua esleipendunaren kontura izango da.

En el caso de la playa de Ondarbeltz, el Ayuntamiento de Mutriku instalará un módulo adecuado para la debida prestación de los servicios indicados en el presente Pliego. El coste del arrendamiento de dicha instalación será a cargo del adjudicatario.

Erabat debekatuta dago baldintza agiri honetan adierazitakoez bestelako aprobetxamendu eta zerbitzuak egitea, hau da, osasun- eta sorospen-zerbitzuarekin zerikusirik ez dutenak, zerbitzua emateko instalazioetan.

Queda totalmente prohibido realizar aprovechamientos y servicios diferentes a los indicados en el presente Pliego, esto es, ajenos a la asistencia sanitaria y de socorro, en las instalaciones vinculadas a la realización del servicio.

9.- ASEGURUA

Kontratua enpresa esleipendunaren arrisku eta menturarako ematen da, eta enpresa horrek bere gain hartzen ditu zerbitzuaren instalazioan eta kudeaketan sortutako erantzukizunak: zibila, lanekoa eta fiskala. Horretarako, aseguruak kontratatuko ditu zerbitzuari atxikitako ondasunak estaltzeko, bai eta hirugarrenen aurrean erantzukizun zibila izateko ere, 300.000,00 euroko balioarekin.

Era berean, Udalaren esku jarri beharko ditu aurreko eskakizunak justifikatzeko behar diren agiri guztiak.

9.- SEGURO

El contrato se otorga a riesgo y ventura de la empresa adjudicataria, que asume las responsabilidades: civil, laboral y fiscal que tengan causa en la instalación y gestión del servicio. Con esta finalidad contratará seguros para cubrir los bienes afectos al servicio, así como de responsabilidad civil frente a terceras partes por un valor de 300.000,00 €.

Asimismo, vendrá obligado/a a poner a disposición del Ayuntamiento cuanta documentación sea necesaria para justificar las anteriores exigencias.

10.- ZAINTZA ETA IKUSKAPENA

Udalak ahalmen osoa du agiri honetan ezarritakoa betetzeko enpresa esleipendunak egunero egingo dituen lanak uneoro ikuskatu eta behatzeko. Enpresa esleipendunak, bestalde, era guztietako erraztasunak eman behar ditu baimendutako langileek egiten dituzten ikuskapen-bisitetarako.

10.- VIGILANCIA E INSPECCIÓN

El Ayuntamiento tiene facultad plena para inspeccionar y vigilar en todo momento los trabajos que, para dar cumplimiento a lo establecido en el presente Pliego, efectuará diariamente la Empresa Adjudicataria, quién por su parte está obligada a dar toda clase de facilidades para las visitas de inspección

que sean realizadas por el personal del Ayuntamiento trabajadores autorizados.

Mutrikuko Udalak, egindako ikuskapenaren arabera, enpresa esleipendunak nahitaez bete beharko dituen agindu eta jarraibide zehatzak eman ahal izango ditu.

El Ayuntamiento de Mutriku podrá dictar en función de la inspección realizada, órdenes e instrucciones concretas que serán de obligado cumplimiento por la empresa adjudicataria.

EGINBIDEA: Klausulen plegu hau Alkatetzaren 2023ko apirilaren 26ko 129/2023 Dekretuaren bidez onartu da.

DILIGENCIA: El presente Pliego de cláusulas ha sido aprobado por Decreto de Alcaldía 129/2023 de fecha 26 de abril de 2023.